

GJHak sustatzeko

OINARRIAK

1

HELBURUA

Proiektu edota ekimen berritzaileen bidez 2030eko Agendako helburuak lortzen laguntzen duten eraldaketak sustatzeko garatutako jarduketengatik nabarmentzen diren Bizkaiko ETEak (1) aitortzea.

Aurkezten diren proiektuek edota ekimenez argi eta garbi sustatu beharko dute garapen jasangarria, eta hurrengo helburuetako batekin edo batzuekin egon beharko dira lotuta:



5. GJH - Genero-berdintasuna aitortza honen eremutik kanpo geratuko da, berdintasuna sustatzeko Enpresan Bardin Sariaren bitartez horretarako sari berezia dagoelako deialdi honetan.

(1) 250 langile baino gutxiago eta 50 milioi eurotik gorakoa ez den negozio-kopurua dituzten enpresak izango dira ETEak.



2 SARIA

Zehaztutako GJHan eragin handiena duen proiektu edo ekimen berritzaileenari aitortzaren ikur adierazgarria emango zaio sari moduan, baita egiaztatzeko diploma ere, baina ez du inolako ordainsari ekonomikorik jasoko. Bestetik, CEBEKek deitutako jendaurreko ekitaldian banatuko da saria.

3 PARTE HARTZEKO ESKAKIZUNAK

Bizkaiko Lurralde Historikoan egoitza edota lantokia duten ETE-ek parte hartu ahal izango dute. Berriaz adierazten da irabazi-asmorik gabeko erakundeek eta enpresa edota administrazio publikoek parte hartzerik izango ez dutela. Enpresa parte-hartzaileek proiektu edota jarduera bakarra aurkeztuko dute.

4 IZANGAIEN AURKEZPENA ETA EPEA

Enpresa interesdunek zuzenean aurkeztu beharko dituzte izangaiak, **ekainaren 28tik irailaren 20ra arte, biak barne.**

5 AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Eskabide-orriaren araberako eskabidea**
- 4-12 orriko memoria argigarria**
- Eskabidean eta memorian adierazitakoaren egiaztagiria**

6 EPAIMAHAIA

CEBEKeko Presidentetzako, lau Presidenteordetzetako eta Idazkaritza Nagusiko karguetan daudenek eratuko dute epaimahaia.

Epaimahaiaren erabakia atzerazina izango da. Horrez gain, behar besteko eskumena ere izango du, oinarriak interpretatzeko, jardunbide-arauak zehazteko eta sariaren helburu edo eskakizunetara egokitzen ez diren izangaiak ez onartzeko.

Epaia jakinarazten denetik 4 eguneko epe luzaezinean, enpresa sarituek idatziz baieztatu beharko diote CEBEKi saria onartzen dutela eta saria banatzeko ekitaldira joango direla. Bi eskakizun horiek betetzen ez badituzte, aitortzari egingo diote uko. Inguruabar hori gertatuz gero, saria puntuazio handiena lortu duen hurrengo izangaiari zuzenean esleituko zaionez, epaimahaia ez da berriro batzartu beharko.



7 BALIOESPENERAKO IRIZPIDEAK


Hona hemen epaimahaiak kontuan hartuko dituen balioespen-irizpideak:

- GJHak kontuan hartzen dituzten estrategiak
- Enpresak jasangarritasunaren arloan dituen politikak eta konpromisoak
- Proiektuak edota ekimenak zehaztutako GJHan duen eragina
- Proiektuaren edota ekimenaren izaera berritzailea
- Interes-taldeen artean 2030eko Agendaren eta GJHen zabalkundea eta ezagutza sustatzen dituzten jarduketak
- Helburuak lortzeko aliantzak sustatzen dituzten jarduketak
- Ekimenak enpresarako, ingurumenerako eta gizarterako balio partekatua sortzeko daukan ahalmena
- Ekimenaren iraunkortasuna
- Ekimena beste erakunde batzuetan ezartzeko aukera
- Ekimenak beste enpresa batzuekin partekatzeko daukan ahalmena (jarduera onaren adibidea)

Berdinketarik egonez gero, epaimahaiburuak erabakiko du, kalitateko botoa izango duelako.

Zehaztutako epeetan aurkeztu diren eskabidearen eta memoriaren edukien araberako balioespena egingo da.

8 PROZESUKO FASEAK





9 DATUEN BABESA, IRUDIEN ERABILERA, LOGOAK ETA MARKAK

DESTINO 2030 HELBURU SARIARA izangai moduan aurkezteko asmoz euren datuak ematen dituztenek berriazko baimena ematen dute datu horiek CEBEKen ardurapeko fitxategian gordetzeko eta DESTINO 2030 HELBURU SARIKO kudeaketa eragilean tratatzeko eta erabiltzeko.

Jakinarazi egiten dizugu sariak banatzeko ekitaldia baino lehen eta bitartean argazkiak aterako ditugula, zure hitzaldiko irudiak grabatuko ditugula eta CEBEKek berak gordeko dituela. Zure datuak eta irudiak ekitaldiaren garapenean eta osteko komunikazioetan argitaratu eta erabili egingo dira CEBEKen aldizkarietan, webgunean eta beste komunikabide digital batzuetan. Era berean, zure posta elektronikoa ere eman ahal izango zaie bertako kideei edota interesdunei.

Informazio hau erakunde laguntzaileei eta babesleei ere eman ahal izango zaie sariaren kudeaketa eragilearen ondorioz.

Saria onartzean, pertsona edo enpresa irabazleek berezko baimena ematen dute, CEBEKek eta bere babesleek haien irudi pertsonal eta korporatiboa nahiz izen osoa edonolako publizitatean, sustapenean, argitalpenean edo beste edozein hedabidetan, edonolako dela ere, merkataritza, informazio edo sustapen arloko helburuetarako erabili dezaten, betiere, DESTINO 2030 HELBURU SARIAREKIN lotuta badaude.

Era berean, pertsona edo enpresa sarituek sarituak izan direla argitaratu ahal izango dute eurentzat egokiak diren komunikabideetan, betiere, CEBEKek aurretiazko baimena ematen badie, argitaratu beharreko edukia onartzeko eta sariaren zein CEBEKen irudia behar bezala erabiltzen dela bermatzeko.

Datuak epealdi mugagabean gordeko dira, horren aurka zaudela adierazten ez baduzu.

Zeure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, eramateko, tratamendua mugatzeko edo baimena ezeztatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzu. Horretarako, idatzia eta NANaren kopia On Diego Lopez de Haro Kale Nagusia 50, 5. solairua helbidera edo lopd@cebek.es posta elektronikora bidali besterik ez duzu.

Era berean, zure eskubideak betetzen ez badira, erreklamazioa ere aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Espainiako Agentzian.

10 ISILEKOTASUNA

CEBEKek eta epaimahaikideek behar besteko konpromisoa hartzen dute, sarituak izan ez diren proiektuetan isilekotasunari eusteko eta sariari buruzko eztabaidarako aurkeztutako agiriak itzultzeko edota suntsitzeko.

11 OINARRIEN ONARPENA

Eskabidea aurkezten denetik deialdian parte hartzean, sariaren oinarriak eta epaimahaiaren erabaki atzeraezina onartu beharko dira.

Eskabideak aurkezteko sistemaren bidez bidali eta zehaztutako eskakizun guztiak betetzen dituzten izangaitzak baino ez dira onartuko.

Ez da inolako partaidetzarik onartuko legezko oinarrien, elkarbizitza-arauen, arau moralen edo hirugarrenen irudiaren beraren aurka doanean.

Erakundeak behar besteko eskubidea izango du edozein parte-hartzaile lehiaketatik kanpo uzteko, eskakizunak betetzen ez dituen edo datu faltsuak edo osagabeak edo kasuan kasuko baimenik gabe ematen dituen. Nolanahi ere, zuzenbidearen arabera bidezkoak diren gainerako ekintzak ere erabili ahal izango ditu.